

# Gipuzkoako lankidetzaren publikoaren azterketa 2005-2007

## Lankidetzaren deszentralizatuari begirada bat



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

**Gipuzkoako lankidetza publikoaren  
azterketa 2005-2007**  
**Lankidetza deszentralizatuari begirada bat**



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

Dirulaguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia



Argitaratzailea: Euskadiko GGKEen Koordinakundea

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

Egileak: Silvia Carballo eta Natalia Rodríguez

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gipuzkoako Ordezkaritzako Eragin Politikorako

Taldearekin lankidetzan

Itzulpena: Elebi Taldea



CREATIVE COMMONS LIZENTZIA

Aitortzarekin - Merkataritzatik at - Obra eratorririk gabe 2.5 Espainia

**Libreki ahal duzu:**

- Obra kopiatu, banatu edota jendaurrean jakinarazi.

**Honako baldintza hauen pean:**

- **Aitortzarekin:** Autoreak edota baimentzaileak xedaturiko eran (baina ez haren babesa duzula edota haren obrak egiten duzun erabilpena babesten dutela adieraziko ez duten eran) aitortu behar dituzu obraren kredituak.
- **Merkataritzatik at.** Ezingo duzu obra hau merkataritzarako erabili.
- **Obra eratorririk gabe.** Ezingo da aldaketa, moldaketa edota obra eratorririk egin obra honetatik abiatuz.
- Obra berrerabili edo banatzerakoan, argi utzi beharko dira obra honen lizentzia zehaztapenak.
- Litekeena da baldintza hauetakoren bat itzurgarria izatea autore eskubidedunaren baimena lortuz gero.
- Lizentzia honetako ezerk ez ditu urritzen ez mugatzen autorearen eskubide moralak.

© Euskadiko GGKEen Koordinakundea

© HIRUGARREN PRENTSA S.L. argitalpen honegatik

Diseinu eta maketazioa: HIRUGARREN PRENTSA S.L.

Peña y Goñi, 13, 1 - 20002 Donostia

[hiruga01@sarenet.es](mailto:hiruga01@sarenet.es)

[www.gakoa.com](http://www.gakoa.com)

ISBN: 978-84-96993-09-9

Lege gordailua: SS-1770-2008

Inprimaketa: Michelena

## Aurkezpena

Ikerlan honen bidez, 2005 eta 2007 artean Gipuzkoako erakunde publikoek bultzatuta egindako garapenerako kooperazioari buruzko hausnarketa egin nahi izan dugu Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundean.

Garapenerako kooperazioaren arloan, euskal erakunde publikoek aldatu egin dute euren jardunbidea urteen joanean, eta baliabideen hornitzaile soilak izatetik garapenaren eragile izatera pasatu dira. Hortik jaio da eraldaketa aztertzeke ikerkuntza egiteko ideia.

Azken urteetan, Gipuzkoan, aldaketak izan dira garapenerako kooperazioaren politketan, hala araudiaren nola aurrekontuaren aldetik. Horregatik, Euskadiko GGKEen Koordinakundea osatzen dugunok pentsatu dugu erabilgarria izan daitekeela egungo egoeraren hausnarketa egitea eta, batez ere, etorkizunerako bilakaerari buruzko zenbait gako ematea, sektorean aritzen diren erakundeetarako eta aztertu ditugun erakunde publikoetarako.

Gipuzkoan gauzatzen den kooperazioaren zati bat aztertzeraz mugatu gara (erakunde publikoetatik bultzatutakora), tokiko esparrutik abiatuta nazioarteko solidaritate eta kooperazio politika berria izan daitekeenaren jarraibideei buruzko eztabaida sustatzeko.

Izan ere, orain, funtsezkoa iruditzen zaigu aurrekontu gai hutsak gainditzea, erakunde publiko jakin bat % 0,7ra iristen den edo ez alde batera uztea. Tokiko eremutik egindako garapenerako kooperazio politikak beste zerbait dira, edo izan beharko lirateke behintzat. Beharrezkoa zen Estatuko kooperazioarekiko desberdintasunak eta potentzialtasunak detektatzea, plangintza koherenteagoa eta koordinatuagoa egiteko, epe laburrerako proiektuak alde batera utzita eta garapenerako hezkuntza bultzatuta.

GGKEen Koordinakundearen ustez, garapenerako kooperazioak gizaki berdinen arteko trukerako tresna beharko luke izan. Truke hori elkarren artekoa eta guztiontzat aberasgarria izan behar da, giza garapena bultzatu behar du, eta munduko pobrezia desagerraraztea lortu behar du.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Gipuzkoako Foru Aldundiari, ikerlana gauzatzeko laguntza eman digulako, bai eta gure kontsultak eta informazio eskaerak erantzun dituzten pertsona guztiei ere.

Puri Pérez Rojo  
Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea



# Aurkibidea

<b>1. Sarrera</b>	
1.1. Aurrekariak eta helburuak .....	7
1.2. Metodologia .....	7
<b>2. Gipuzkoako garapenerako laguntza ofiziala .....</b>	<b>11</b>
2.1. Lankidetza deszentralizatuaren garapena eta egungo testuingurua .	11
2.2. Gipuzkoako erakunde publiko lankideak:	12
– Gipuzkoako Foru Aldundia .....	12
– Batzar Nagusiak.....	12
– Euskal Fondoa .....	12
– Udalak .....	14
2.3. Nork kudeatzen du laguntza .....	15
2.4. Nola kudeatzen da laguntza: .....	15
– Lankidetza zuzena .....	15
– Zeharkako lankidetza .....	16
2.5. Gipuzkoako laguntza kopuruaren analisia: .....	17
– GGKEok zer eskatzen dugu .....	17
– Gipuzkoako kopuruaren inguruko egia .....	17
2.6. Gipuzkoako GLOaren kalitatearen analisia:	
– Nola banatzen da laguntza: .....	22
Lankidetza .....	23
Garapenaren inguruko sentsibilizazioa eta hezkuntza .....	24
Ekintza humanitaria .....	24
– Planifikazio estrategikoa: lehentasun geografiko eta sektorialak	25
– Bateratzea .....	26
– Lankidetza eta koherentzia .....	26
– Gizartearen parte-hartzea .....	27
– Lankidetza sailen giza baliabideak .....	27
– Gardentasuna .....	28
<b>3. Ondorioak eta aholkuak .....</b>	<b>29</b>
<b>4. Iturri bibliografikoak .....</b>	<b>33</b>

## ERANSKINAK

<b>I</b> Gipuzkoako erakundeen fitxak .....	35
<b>II</b> 2007ko azaroaren 9an alkateei bidalitako gutuna .....	81
<b>III</b> Erakundetako lankidetzaren arduradunei bidalitako galdera ....	85

# 1. Sarrera

## 1.1. Aurrekariak eta helburuak

Tokiko erakundeen lankidetzaz deszentralizatua izugarri garatu eta handitu da azken urteetan, bai Espainian bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Euskal erakundeek arauak, azpiegiturak, berariazko aurrekontu-sailak eta diru laguntza deialdi publikoak onartu dituzte, besteak beste.

Gipuzkoako erakunde publikoak baliabide horiez hornitu dira, bakoitza bere erritmoan, baina oraingoz ez dago eskualdean burutzen den lankidetzaz bere osotasunean aztertuko duen ikerketarik.

Beraz, beharrezkoa iruditu zaigu erakunde horiek bultzatzen duten garapenerako lankidetzaren gaineko hausnarketa egitea, tokiko administrazioen politika solidarioa erakusteko eta, aldi berean, erakunde horiek arlo horretan zer paper bete duten eta zer funtzio bete beharko luketen eztabaidatzeko bide emateko.

Txosten honen bidez, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak Gipuzkoaren Garapenerako Laguntza Ofizial (GLO) publikoaren ezaugarriak ezagutu eta ezagutzera eman nahi ditu. Horretarako, 2005-2007 aldian erakunde publikoen –Foru Aldundia, Batzar Nagusiak eta udalak– jokabidea nolakoa izan den aztertuko da. Sarrerako ikerketaren ostean, tokian tokiko eragileek sustaturiko nazioarteko solidaritate eta lankidetzaz politika berri baten ildo nagusi izan daitezkeen gaineko hausnarketa eskaini nahi da.

Aurreneko ikerketa honek jarraipena izan dezan nahi dugu. Izan ere, eskuratutako informazioa are baliagarriago eta erabilgarriago bilakatuko da urteek aurrera egin ahala, pixkanaka-pixkanaka izandako aldaketak islatuko direlako.

## 1.2. Metodologia

Hauek izan dira ikertutako erakundeak:

- Foru Aldundia
- Batzar Nagusiak
- 5.000 biztanle baino gehiagoko herriak (34)
- 5.000 biztanle baino gutxiagoko herriak, baina azkeneko hiru urteetan deialdiren bat egin dutenak (4)



- Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten 13 udalerrri daude, baina Euskal Fondoko kide direnez, udalerrri horiek erakunde honi egindako ekarpenen datuak biltzea erabaki zen.

Ikerketa esparru horretara mugatzea erabaki dugu, Gipuzkoako udalerrri ugari dituelako eta datuak biltzeko zailtasunak izan ditugulako. Gipuzkoako 88 udaletatik 38 aztertu dira<sup>1</sup>. Handienak direnez, eskualdeko populazio osoaren % 92,70 hartzen du txostenak.

Udaletako Lankidetzarako aurrekontu-sailen arduradunak izan dira gure zuzeneko informazio-iturri nagusiak datuak biltzeko garaian. Era berean, 2005, 2006 eta 2007 urtetako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialan argitaraturiko lankidetzarako diru laguntza deialdien oinarriak aztertu dira.

Gainera, udal bakoitzaren aurrekontu orokorren datuak eman dizkigu Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak, baita Foru Aldundiaren beraren aurrekontu bateratuarenak ere.

2005. eta 2006. urteetan Euskal Fondoari egindako ekarpenei dagozkien datuak erakunde horren memoriatik jaso eta, udal bakoitzak eskainitako datuekin alderatu ditugu. 2007ko datuak, aldiz, ez dira oraindik argitara eman, eta udalen bidez lortutako batzuk baino ez ditugu alderatu Euskal Fondoaren datuekin.

Udalek eman dizkigute Eudelen lankidetzara proiektuei buruzko datuak, eskatutako datuak ezin izan baititugu erakunde horrengandik lortu.

Hauxe izan da prozesua:

- Euskal Fondoarekin eta Eudelekin harremanetan jarri ginen, ekimena sendotzeko helburuarekin eta laguntza jasotzeko gogoz. Erakunde biek proposamenarekin bat egin eta lankidetzari ekin zioten.
- Gipuzkoako herri eta hiri guztietako alkateek ikerketaren aurkezpena, helburua eta metodologia azaltzen zituen gutuna jaso zuten<sup>2</sup>. Bertan, GGKEen Koordinakundeak behar zituen datuak biltzeko udalaren laguntza eskatu zitzaien.
- Ikerturiko erakunde bakoitzak (Foru Aldundia, Batzar Nagusiak, udalak) galdera sorta bat jaso zuen<sup>3</sup>. Bertan, ikerketarako funtsezkoak ziren datuak eskatu zitzaizkien. Alde horretatik, nabarmentzekoa iruditzen zaigu erakundeen jarrera eskasa<sup>4</sup>.
- Galdera sorta erantzun gabe uzteaz gain, telefonoz egindako eskakizunari ere entzungor egin diote zenbait erakundek<sup>5</sup>.

<sup>1</sup>Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Deba, Donostia-San Sebastian, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Eskoriatza, Getaria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Irun, Lasarte-Oria, Lazkao, Legazpi, Lezo, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Orrio, Pasaia, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zarautz, Zegama, Zumaia eta Zumarraga.

<sup>2</sup> Gutun hori II. eranskinean ikus daiteke.

<sup>3</sup> Galdera sorta III. eranskinean ikus daiteke

<sup>4</sup>Denera, 89 erakundek jaso zuen galdera sorta, baina 11 udalen erantzuna besterik ez zen jaso (Aretxabaleta, Azkoitia, Beasain, Donostia-San Sebastian, Errenteria, Getaria, Lasarte-Oria, Oñati, Tolosa, Villabona eta Zarautz) Aldundiarenaz gain. % 12 suposatzen du horrek, eta erantzun eta lankidetzara eskasa da, edonola ere.

<sup>5</sup> Urretxuko eta Zumaiaiko udalei buruz ari gara, zehazki.

Azkenik, argitaraturiko datu aukeraketarako irizpideen eta erabilitako metodologiaren gaineko hainbat ohar:

- Lankidetzara bideraturiko aurrekontu-sailari dagokionez, erakunde bakoitzaren aurrekontu orokorraren ehunekoari erreparatu diogu<sup>6</sup>. Beharrezkoa deritzogu ñabardura hori egiteari, erantzunek hainbat irizpide hartu baitituzte aintzat (gastu-aurrekontua, sarrera-aurrekontua, aurrekontu-sailen batura...).
- Udalek, eta Foru Aldundiak eta Euskal Fondoak aurrekontu orokorrei eta Euskal Fondoari egindako ekarpenen inguruan emandako datuetan alde aurkitu dugun kasuetan, azken erakunde horien datuak lehenetsi ditugu.
- Udaletxe zenbaiten datuetan, lankidetzarako aurrekontu-sailaren banakapena ez dator bat «Lankidetzarako aurrekontu-saila guztira» atalean adierazitakoarekin. Datu egokiak lortzerik izan dugun kasuetan, udalak berak emandako banakapena argitaratu dugu, nahiz eta aurrekontuarekin bat egin etorri.
- Irizpideak bateratzeko asmoz, «Lankidetzarako aurrekontu-saila guztira» honetan Euskal Fondoari eginiko ekarpena sartu da, bazkide-kuota alde batera utzita.

Datozen urteetan jarraipena eduki dezan egin da ikerketa hau; izan ere, etorkizunean, eta hasierako azterketa hau oinarri hartuta, Gipuzkoan ematen den GLOaren benetako egoera ezagutu nahi da. Horrela, Gipuzkoako udalei eta Foru Aldundiari hainbat gomendio eman nahi zaizkie, arlo honetako politika publikoak diseinatzeko eta hurrengo deialdiak egiteko orduan aintzat eduki ditzaten.

---

<sup>6</sup> Gipuzkoako Foru Aldundia da salbuespena, diru laguntzari buruzko 2.4. atalean azalduko dugun bezala, erakunde zerga-biltzailea izaki, horren aurrekontuaren irizpidea aplikatu baitugu.



## 2. Gipuzkoako Garapenerako Lankidetza Ofiziala

### 2.1. Lankidetza deszentralizatuaren garapena eta egungo egoera

Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) arabera, herrialde garatuek garatze bidean dauden herrialdeetara bideraturiko baliabide publikoak dira GLO Garapenerako Laguntza Ofiziala. Laguntza horren helburua da herrialde horien garapen ekonomikoa eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea, eta dohaintza oso edo partzial gisa ematen dira.

Deszentralizaturiko GLOa edo deszentralizaturiko lankidetza deszentralizaturiko administrazioetatik bideratzen den zatia da, alegia, Autonomia Erkidegoetatik, foru aldundietatik eta udaletatik bideratzen dena.

Garapenerako lankidetza garatzen eta hazten ari da oraindik Espainian, eta administrazio deszentralizatuak –autonomia erkidegoak, diputazioak eta udalak– eta eskualdeko eta tokiko beste hainbat erakunde gero eta garrantzitsuagoak dira, lankidetza funtsak, besteak beste. 2006. urtean, autonomia erkidegoek 329,9 milioi euro bideratu zituzten garapenerako lankidetza burutzeko; Espainiako lankidetza osoaren % 11 da hori, hain zuzen ere. 2005. urtearen aldean, % 21,7 handiagoa da<sup>7</sup>.

Lankidetza sozietate zibilak aldarrikatzea, zehaztea eta kudeatzea da lankidetza deszentralizatuaren ezaugarri nagusia, erakunde horietatik hurbilago baitago eta funtsezkoa izan da hori lankidetza hedatzeko<sup>8</sup>.

Gauza berria da lankidetza EAEn. Aintzat hartu behar da, 1981 urtera arte Espainia ez zegoela herrialde garatuen artean, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Moneta Funtsaren aburuz. Orduan utzi zion laguntzak jasotzeari, eta laguntzak emateari ekin zion.

Orditik aurrera hasi ziren lankidetzara bideraturiko ekimenak egonkortzen, bai gobernuaren baitan bai gobernu kanpoko eragileen aldetik. 1988an, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECI) sortu zen eta Lankidetza eta Garapenerako EAeko Funtsa sortzeko ituna sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta GKE zenbaitek, EAeko laguntza ofizialen formalizatzeari bide emanda. Nabarmentzekoa da ituna sinatzen zen bitartean, EAeko udalek bat egin zutela lankidetza deszentralizatuarekin; Gasteiz eta Ordizia izan ziren % 0,7ko laguntza ematea onartu zuten lehenak.

<sup>7</sup> Intermón Oxfam (2008), *La Realidad de la Ayuda 2007-2008*, Bartzelona.

<sup>8</sup> CONGDE (2006), *AOD hoy. Discurso y realidad*, Madril.

## 2.2. Gipuzkoako erakunde publiko lankideak

Azken hiru urte hauetako Gipuzkoako erakundeen garapenerako lankidetzak politikak aztertuko ditugu. Beraz, erakunde bakoitzak bere lankidetzak politika nola bideratzen duen aztertuko dugu.

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2003ra arte, Gipuzkoako Foru Aldundiak garapenerako lankidetzak aurrekontu-saila GLSFra bideratzen zuen<sup>9</sup>, eta Gobernuaren esku uzten zuen garapenerako lankidetzak funts erabilgarrien zati handi bat. Ordainetan, funts hori kudeatzeko batzordean parte hartzen zuen, eta laguntza esleipenak erabakitzen ziren bertan. Urte horretatik aurrera, ordea, GGKEetzako diru laguntza egitarau propioa jarri zuen abian; hala, dirua GLSFra bideratzeari utzi, eta bera hasi zen hori kudeatzen. Egun, eta 2007. urtetik, Kirol eta Kanpo Harremanetarako Sailaren menpeko Lankidetzak, Giza Eskubide eta Berdintasun Zuzendaritza Nagusia arduratzen da aurrekontu-sailaren kudeatzeaz.

Foru Aldundiak hainbat oinarri ezarri ditu eta lankidetzak deialdia egiten du urtero, berariazko lankidetzak-proiektuak, garapenerako trebatze eta sentsibilizazio proiektuak, eta laguntza humanitarioko eta larrialdi jarduerak burutzeko.

Bestalde, gaizki iruditzen zaigu horrelako erakunde batek epe ertainerako garapenerako lankidetzak politikak planifikatzeko gida-planik ez edukitzea.

### GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

Halaber, Batzar Nagusiek ere garapenerako lankidetzak proiektuak finantzatzera bideratu dute beren aurrekontuaren zati bat azken urte hauetan. Kasu horretan, bi GGKEri Guatemalan eta Tindoufeko (Aljeria) iheslarien kanpamenduetan lankidetzak proiektuak egiteko diru laguntza zuzena ematea da lankidetzak hori.

Batzar Nagusiek lankidetzak bideraturiko diru kopurua handia izan arren, ez dute lehia askearen, berdintasunaren edota publikitatearen printzipioa betetzen, eta ez dute politika horiek aurrera eramateko plangintzarik.

### EUSKAL FONDOA

Hasiera batean, finantza-baliabide eta gaitasun tekniko txikieneko udal eta foru aldundiek Lankidetzak Funtsetan parte har zezaten sortu zen Tokiko Euskal Erakunde Lankideen Elkarteak (Euskal Fondoak). 1986an sortu zituzten funtsok, lurralde eremu bereko erakunde anitzen (udalak, foru aldundiak, eskualdeko kontseiluak, mankomunitateak, edo gobernu autonomikoak) ekarpenak era bateratuan bideratzeko, eta laguntza eta kudeaketa teknikoak eman eta salerosketa kostuak murrizteko, zenbait kasutan lankidetzak ere burututa.

<sup>9</sup> GLSF: Garapena eta Lankidetzak Sustatzeko Funtsa. 1990. urtean sortu zen, eta Eusko Jaurlaritzak ez ezik, hiru foru aldundiek osatzen zuten garai hartan.

Euskal Fondoa 1996ko ekainean sortu zen, garapenerako lankidetzaz deszentralizatuan jarduten duten udalen eta gainerako tokiko erakundeen (Arabako Foru Aldundia eta bestelako eragile txikiagoak) plataforma gisa. Egun, finantza-gaitasun handiagoko erakundeek ere parte hartzen dute Euskal Fondoan.


«Euskal Fondoa tokiko garapenaren esparruan udalerrri arteko proiektuak finantzatzearen eta kudeatzearen alde dago. Era berean, garapen plan estrategikoen diseinuan eta kudeaketan parte hartzera bultzatzen ditu tokiko erakundeak»<sup>10</sup>.

Horren helburu nagusien artean, garapenerako nazioarteko lankidetzaz ekimenak sustatzea, babestea eta koordinatzea dago, eta, bereziki, euskal erakunde eta eragileenak, bai eta herritarrek gai horietan parte hartzera eta horien hausnarketa egitera bultzatzera ere.

Euskal Fondoa osatzen duten 99 udalerritatik 33 gipuzkoarrak dira, 2005ean eta 2006an bildutakoaren % 35 eta % 30 ekarri zuten horiek, hurrenez hurren<sup>11</sup>:

1. Grafikoa

## GIPUZKOAKO UDAL KIDEEK EUSKAL FONDORA BIDERATURIKO FUNTSAK



<sup>10</sup> Haedo, Marina (2006), «La cooperación descentralizada en Centroamérica», *Lankidetzaz deszentralizatuaren arrisku eta aukerak*, Mundubat/Gakoa.

<sup>11</sup> Euskal Fondoaren 2005-2006 aldiko Jarduera Memoriatik ateratako datuak. Ez dira 2007. urteko datuak sartu, Euskal Fondoak ez dituelako oraindik argitaratu.

## UDALAK

Carlos Gómez Gilen arabera, «lankidetza deszentralizatuaren ezaugarri erakargarrietako bat da udalerriak lankidetza solidariorako duen gaitasun egokia islatzea»<sup>12</sup>. Besteak beste, «GKEak eta tokiko elkarte mugimendua ekintza sozial handietan inplikatzeko duen gaitasunagatik, zeregin hauetarako baliabideak lortzea erraztuta; eta, aldi berean, eskala txikiko bere egitura sozial eta ekonomikotik abiatuta, udalerrri bakoitzeko xehetasunak islatzen dituzten ekimenak martxan jartzeko aukera emateagatik, berehalako eraginkortasun maila altuko proposamen eta egitarauen bidez».

Udalerrrien biztanle kopuru aniztasuna dela eta, ezinezkoa da horiei buruz talde homogeneoa balira bezala hitz egin; beraz, udalerrri handi eta txikien arteko bereizketa egin behar da. Ondorioz, Gipuzkoako udalbatzen garapenerako lankidetza ekimenak oso heterogeneoak dira.

Erabiltzen duten baliabide kopuru handia ikusita, EAEkoaren antzeko erakunde-esparrua eta lankidetza politika eduki beharko lituzkete udalerrri handiek, baina pixka bat txikiagoa. Horietako zenbaitek aintzat hartu dute dagoeneko lankidetza politika beren agenda politikoetan.

Hainbat udal Euskal Fondoaren kide dira, eta beren lankidetza aurrekontu-sailen zati bat funtsera bideratzen dute. Euskal Fondoan parte hartzeaz gain, ahal duten neurriko diru-laguntzak ematen dituzte udal txikiek. Tarteka, deialdi publikoak antolatzen dituzte, proiektuak onartzeko eta funtsak banatzeko. Beste batzuetan, deialdi publikorik gabe banatzen dituzte funts horiek, argitaratze eta lehia askearen printzipioak bete gabe.

Aipagarria iruditzen zaigu, udalerrri bakar batek ere, ezta handienek ere, lankidetza politikari buruzko plangintza estrategikorik (gida-planik) ez edukitzea.

Baliabide gutxi bideratzen direnez eta horiek zatitzeko ohitura dagoenez, proiektu txiki eta zehatzak soilik burutzen dira. Oro har, zaila da horrelako ekimenen epe luzerako iraunkortasuna bermatzea, eta eragin txikia dute. Hala, udalerriz gaindiko egituratan biltzen dira udalerrri txiki asko (Euskal Fondoa). Udalerrri txikien edota lankidetzarako funtsak kudeatzeko gaitasun txikia duten herrien parte-hartzeak lankidetzaren gehiegizko zatikatzea ekiditen lagun dezake.

Bestalde, Gipuzkoako udalerrrien artean gehien errepikatzen den alderdietako bat da (aurrerago sakon aztertuko dugu) lankidetza politikak askotariko sailtan sakabanatzea, eta, gehienetan, Gizarte Ongizate Sailean. Hala, udal batzuek lankidetza politika egituratua goak garatu badituzte ere, baliabideak modu gutxi gorabehera antolatuan hornitzera mugatu dira beste batzuk.

<sup>12</sup> Gómez Gil, Carlos (2001). «La Cooperación Descentralizada en España: ¿motor de cambio o espacio de incertidumbre?», *Bakeaz koadernoak*, 46 zenb., Bilbo.

### 2.3. Nork kudeatzen du laguntza

Hasteko, komenigarria iruditzen zaigu Gipuzkoan dauden lankidetza eragileak bereiztea. Batetik, aurreko atalean aipatu ditugun erakunde publikoak daude; eta, bestetik, sozietate zibil antolatua.

«80ko hamarkadaz geroztik, funtsezko funtzioa dute GGKEek garapenerako Espainiako lankidetza sisteman. Neurri handi batean, lankidetza proiektuak kudeatu eta sustatu zituzten GGKEek, eta lankidetza sistema publikoaren erakunde, giza baliabide eta baliabide teknikoaren gabeziak bete. Are garrantzizkoagoa bilakatu zen alderdi hori 90eko hamarkadaren hasieran, gobernu autonomikoak eta tokiko udalbatzak laguntza sisteman parte hartzen hasi zirenean»<sup>13</sup>.

Gipuzkoan, salbuespenak salbuespen, diru kopuru txikiak bideratzen dituzte zuzenean tokiko udalbatzek, GGKEek kudeatzen baitituzte lankidetzarako kopuru handienak. Horrela, bat egiten dute Espainian nagusi den joerarekin eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legeak (GLEL) dioenarekin<sup>14</sup>, «garapenerako lankidetza eragile nagusiak» GGKEak direla adieraztean.

### 2.4. Nola kudeatzen da laguntza

Esan bezala, lankidetza ekimenak gauzatzeko bi modu daude, kudeaketari dagokionez: zuzena, erakunde publikoak berak burutzen dituen garapen ekintzak, eta zeharkakoa, bestelako lankidetza eragileek deialdi publiko zein hitzarturiko aginduen bidez egindakoa.

#### LANKIDETZA ZUZENA

Normalean, erabilitako bitarteko heterogeneotasuna eta lankidetza bideratzen edo gauzatzaren duten eragile askotarikoak dira lankidetza deszentralizatuaren ezaugarri nagusia.

Erakunde publikoek garatutako lankidetza mota bat lankidetza zuzena da, eta zuzenean bideratzen dute laguntza herrialde hartzailetako administrazioetara. laguntza horiek Hegoaldeko zenbait erakunde edo udalenzako transferentzia ekonomiko edo teknikoak izaten dira.

Era honetan, berebiziko garrantzia duten zenbait alderditan lagun diezaiekete tokiko erakundeek garatzen bidean diren herrialdeei, hala nola deszentralizazio prozesuetan, tokiko agintean, hirigintzan edo ingurumenean.

80ko hamarkadan eta 90eko hamarkadaren hasieran, «udalerrien arteko senidetze»aren bidez egin zen ezagun lankidetza zuzena. Zenbait uda nazioarteko lankidetza egitarauak ezartzen hasi ziren hurbileko zituzten guneeekin; esate baterako, saharar herriarekin. Hegoaldeko udalerriekin senidetzea senidetze sinbolikoa baino gehiago izan daiteke, lankidetza iraunkorrerako esparrua ahalbidetzen duelako.

<sup>13</sup> Intermon Oxfam (2006). *La Realidad de la Ayuda, 2005-2006*, Bartzelona.

<sup>14</sup> Otsailaren 22ko Garapenerako Lankidetzaren 1/2007 Legea, (2007ko martxoaren 8ko EHAA).



Aurrekontu-sailak tokiko edo lurraldeko administrazioen lankidetzaz zuzenerako bideratzeko joerari eutsi zaio, eta zenbait kasutan, egonkortu ere egin da hori, azken urte hauetan. Hala, hasierako senidetze horiek hainbat modutan eragiten dute, oraindik, gure lurraldean: senideturiko udalerrietara bideratutako lankidetzaz zuzena, senideturiko udalerrietan diharduten GGKEekin itunak sinatzea, batez ere Gipuzkoarekin lotura sendoak eduki dituzten herriekin eta herrialdeekin, hala nola saharar herriarekin edo Erdialdeko Amerikako herrialdeekin.

«EAEko GGKEen Koordinakundearen iritziz, horrelako ekimenen gaineko irakurketa positiboa izan liteke, metatutako ezagutza eta kudeaketa esparru zenbaitetan eta udal estrategietan sorturiko ahalmenak baliatuko balira, tokiko eremuarekin lankidetzaz zuzen mota desberdinen bidez harremanetan jarrita, eta Udaleko sail gehiagok proiektuetan parte hartuta»<sup>15</sup>.

Hala ere, arrisksutsua gerta daiteke lankidetzaz zuzena, gardentasun eta kontrol gabezia eragin dezakeelako. Horregatik, komenigarria da lankidetzaz modu horretarako kopuru txikiak bideratzea<sup>16</sup>, eta kudeaketa ahalik eta gardenena izatea, nahierara esleitzea ekiditeko. Lankidetzarako Euskal Legeak berak<sup>17</sup> 9.3. artikuluan dioenez, lankidetzarako aurrekontuaren % 10 bakarrik kudea dezake Eusko Jaurlaritzak zuzenean.

Lorturiko datuen arabera, argi geratzen da lankidetzaz hori ez dela gure lurraldean garatzen; baina hala ere aintzat hartu behar ditugu datu horiek, kontuan hartuta lankidetzaz zuzenik egiten ote duten galdetu zaienean erakunde gehienek ez dutela erantzun.

Edonola ere, lankidetzaz deszentralizatua Gipuzkoan GGKEen bidez egiten dela ondoriozta dezakegu.

## ZEHARKAKO LANKIDETZAZ

Erakunde publiko baten zeharkako laguntzaz ari garenean, Legeak onartzen dituen beste bi lankidetzaz eragileek diru publikoarekin burututako laguntzaz ari gara: hortaz, garapenerako gobernu kanpoko erakundeak eta irabazi asmorik gabeko bestelako elkarteak (unibertsitateak, sindikatuak eta gainerako erakunde sozialak), eta horrek esan nahi du erakunde publikoak besteen proiektuak finantzatzen dituela.

Lankidetzaz mota hau honela burutzen da gure lurraldean:

- GGKE bati zuzenean esleituta, inolako deialdi publikorik egin gabe<sup>18</sup>
- Diru laguntzen deialdi publikoak eginda<sup>19</sup>:

<sup>15</sup> Rodríguez Fernández Natalia (2008), Análisis de la política de cooperación al desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz 1996-2006", EAEko GGKEen Koordinatzailea. Gasteizko Udala. Arabako Foru Aldundia. [www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

<sup>16</sup> Lasarte-Oriak, adibidez, lankidetzaz aurrekontu-sailaren zati handi bat zuzenean kudeatzen du (% 60 baino gehiago 2005 eta 2006an eta % 48 2007an).

<sup>17</sup> Otsailaren 22ko 1/2007 Legea, Garapenerako Lankidetzaz onartzen duena (2007ko martxoaren 8ko EHAA).

<sup>18</sup> Horren adibide dira Azpeitia, Deba, Elgoibar, Irun, Lasarte-Oria, Oiartzun, Usurbil eta Zumarragako udalak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak..

<sup>19</sup> Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Ataun, Azkoitia, Beasain, Bergara, Donostia-San Sebastian, Eibar, Errearteria, Eskoriatza, Getaria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Irun, Lazkao, Legazpi, Oñati, Ordizia, Orío, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Villabona, Zarautz eta Zegamako udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Ikertutako erakundeen % 70ek deialdi publikoen bidez banatzen dituzte lankidetzara bideraturiko funtsak, eta horietan lehia daitezke GGKEak. Udalen kasuan, udalerrarekin loturaren bat daukaten eragileak lehenesten dira deialdi horietan, gehienetan.

Kasu gehienetan, oinarriak urtero argitaratzen diren diru laguntza deialdietan daudenez, irizpide eta lehenetasun politikoak egonkorak dira.

Nahitaezkoa deritzogu epe luzeko plangintzari kalitatezko ekimenak aurrera eraman nahi badira. Egoeraren arabera erabakiak gainditu behar dira egonkortasunaren mesedetan, bestelako interesei muzin eginez, pobreziaren aurka borrokatzeko helburuari lotuz.

– Hitzarmenak

GGKE askoren proiektuak deialdi publikotik kanpo aztertu eta onartzen dira. Horrelako hitzarmenek egonkortasun handiagoa ematen diete proiektuei, diru laguntza publikoen deialdietan ez bezala, ez baitaude lehia askearen mende. Erakunde finantzatzailearentzat lehenetasuneko den ekintza zehatz bat burutzeko diru esleipenak izaten dira normalean.

Lankidetzarako modu honek egonkortasuna ekar dezake, baina, aldi berean, gardentasun gabezia nabarmena eragiten du, horren jarraipena egin nahi izanez gero.

Horrenbestez, hitzarmenak sinatzeko garaian aintzat hartu beharko dira gutxieneko honako bi baldintza hauek: batetik, era honetan bideratutako diru kopurua mugatu beharko litzateke; bestetik, berriz, lehia askerik gabe esleituak izaki, ezinbestekoa da ahalik eta gardentasun handienarekin kudeatzea, hautazko esleipenak ekidinda.

Gipuzkoan sinatzen diren hitzarmenei buruzko daturik ezin izan dugu sartu, ez baitizkigute eman. Horregatik diogu gardentasuna ezinbestekoa dela halako politiketan.

Gauza bera eskatzen da hiru kasuetan: GGKEek parte-hartze aktiboa edukitzea eskualdean edo udalerrian.

## **2.5.- Gipuzkoako laguntza kopuruaren analisia**

**Nola neurtu erakundeek bideratutako garapenerako languntza ofiziala, proposamen bat.**

Nazio Produktu Gordinaren (NPG) % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO) bideratzeko konpromisoak Nazio Batuek 1970. urtean egindako 25. Biltzar Nagusian estatu kideek hartutako erabakia du jatorri.

Biltzar horretan, herrialde aberatsek pixkanaka beren GLOa handitzeko agindu zuen Nazio Batuen Erakundeak. Beranduenez, 1975erako, merkatu prezioen arabera NPGaren % 0,7 izatera iritsi behar zuen.

Horixe izan zen 0,7aren aldeko mugimenduaren sorrera; Espainian, Aintzira Handien 1994ko krisiaren ondoren eta 0,7aren aldeko kanpainarekin hartu zuen ospea, inoizko mobilizaziorik handiena izan baitzen.

Horren ondorioz, erkidegoetako eta tokiko gobernua garapenerako lankidetzarako aurrekontu-sailak bideratzen hasi ziren, eta lankidetzaren deszentralizatua jarri zuten abian; edonola ere, gehienak ez ziren bere aurrekontuen % 0,7 ere bideratzeko gai izan.

Euskal erakundeak lehenago hasi ziren aurrekontu-sail bereziak bideratzen; Eusko Jaurlaritza, 1985ean.

Hasieratik, euskal erakunde publikoak eredu izan dira, Espainian, GLOera bideratutako aurrekontuei dagokienez. Zoritxarrez, baina, aldatu egin da joera hori. Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) biztanleko BPGd 7000 euro hazi da azken bost urteetan (2002tik 2006ra), baina GLOa 7 euro baino ez, % 0,1<sup>20</sup>.

Egun, beren aurrekontuen % 0,7 GLOera bideratzen dute hainbat erakundek. Hala ere, adierazle ugari erabiltzen da ehuneko hori kalkulatzeko (gastu-aurrekontuak, diru sarrera propioen aurrekontuak, aurrekontu-sail batzuen konbinazioak...), eta, kasu batzuetan, kudeaketa autonomian oinarritzen kontabilitate bikoitza ekiditeko (esate baterako, aurrekontu propioaren arabera kalkulatzeko udalek % 0,7 hori, funtsen zati bat bestelako erakunde publikoen transferentzien bidez jasotzen baitituzte). Gainera, aintzat hartu behar da erakunde publikoek darabiltzaten diru kopuruen berri edukitzeko zailtasuna, azkar eta zehatz eman beharko balituzkete ere.

Hala ere, ez dezagun ahaztu errenta dela nazioarteko konpromisoaren erreferentzia, aurrekontu publikoak errenta nazionalaren herena baino baitira<sup>21</sup> eta % 0,7k ekarpen publikoari egiten baitio erreferentzia, hori kudeatzen duen administrazioaren maila zeinahi izanda ere (estatua, autonomia erkidegoa, eskualdea edo udala). Beraz, erantzukizuna administrazio maila desberdinen artean partekatzea bilatu beharko litzateke, konpromisoa banatzeko irizpideak ezarrita.

2006 urterako, 434 milioi euro ingurukoa zen EAEko BPGdren % 0,7. Baina erakundeek ekarpena, guztira, ez zen 60 milioi eurora iritsi. Nazioarteko konpromisoak betetz gero, 3 eta 10 bider artean handituko lukete erakundeek garapenerako lankidetzara bideratzen den diru kopurua. Hortaz, aurrekontu bateratuak hartu beharko litzuzkete erreferentzia gisa EAEko erakundeek<sup>22</sup> denen artean BPGdren % 0,7 lortzeko aurreneko urrats gisa.

Foru aldundien kasuan, horien berezitasuna argitu behar dugu. EAEko finantziario ereduaren arabera, hiru mailatan antolatzen da EAEko Ogasuna: EAEko Ogasun Orokorra, hiru foru aldundiak eta tokiko ogasunak. Foru Aldundiak dira zerga-bilketaren arduradun nagusiak, Kontzertu Ekonomikotik eratorritako sarrerak kudeatzen dituzte eta<sup>23</sup>. Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketaren ondoriozko diru sarrerak EAEko Ogasun Orokorren eta lurralde historikoetako foru aldundien artean banatzen dira, Espainiari Kupoa ordaindu ostean. EAEko diru sarrera guztien % 90, hain zuzen ere. Gainera, foru aldundiak arduratzen dira udalerrien diru sarreratako zenbait (erdiak ia) finantzatzear, haien gaineko finantza-gidaritza eskumenak oinarri hartuta.

Gainerako ogasunen diru sarrerak erakundeon zerbitzu eta eskumenak finantzatzeko dira.

Foru aldundien zerga-biltzaile eta banatzaile izaera dela eta, neurritz kanpoko litzateke % 0,7 aurrekontu bateratu osoari aplikatzea; beraz, aurrekontu propioa erabil lezakete erreferentzia gisa, hasteko.

<sup>20</sup> De la Fuente Pereda, Noemí eta González Martín, Miguel (2007), «Zenbakiez Haratago: la cooperación al desarrollo vasca a debate», Alboan. [www.alboan.org](http://www.alboan.org)

<sup>21</sup> Ibid.

<sup>22</sup> Aurrekontu bateratua, guztira: Erakundearen aurrekontua guztira, erakunde autonomoak barne.

<sup>23</sup> Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta horren lurralde historikoetako foru erakundeak arteko harremanak buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea.


## Gipuzkoako GLO-a

EAERI buruzko aurreko diagnostikoa ez da Gipuzkoari buruzko txosten honek islatzen duenaren oso desberdina. Ikertutako erakundeek garapenerako lankidetzara bideratzen duten kopurua jakin nahi izan dugunean, haietako bakoitzak irizpide desberdinen arabera kalkulatu duela ikusi dugu, eta horrela ezin da benetako konparaketarik egin.

Zailtasunak ikusita, bateratu gabeko aurrekontu orokorra hartu dugu aintzat erakundeen ekarpenak kalkulatzeko, eta emaitzak, oro har, ez dira batere itxaropentsuak.

2 Grafikoa

### GIPUZKOAKO ERAKUNDEEK LANKIDETZARA BIDERATURIKO BATERATU GABEKO AURREKONTU OSOAREN GAINEKO EHUNEKOAREN EBOLUZIOA



Azkeneko hiru urteetan nabarmen jaitsi da lankidetzara bideratutako bateratu gabeko aurrekontuaren ehuneko. Hain zuzen ere, 2005eko % 0,54tik 2007ko % 0,43ra jaitsi da, eta argi eta garbi gezurtatzen du erakundeek gure lurraldeari buruz emandako gero eta elkartasun handiagoaren irudia.


Mezu horiek «Gipuzkoa solidarioa» aurkezten digute, aurrekontu-sailen hazkundera oinarrituta, baina elkartasuna aurrekontuen arabera neurtu nahi bada, ezin dira balio absolutuak erabili, erakundeek ez baitute esaten aurrekontu orokorrak lankidetzarako aurrekontuak baino gehiago hazi direla. Ondorioz, okerreko mezuak zabaltzen dituzte.

Gipuzkoako erakundeek garapenerako lankidetzaren aldeko apustua egin nahi badute, ahalegin handia egin beharko dute nazioarteko konpromisoetan aipatzen den % 0,7 horretara iristeko.

**GIPUZKOAKO ERAKUNDEEK LANKIDETZARA BIDERATURIKO BATERATU  
GABEKO AURREKONTUAREN GAINEKO EHUNEKOAK**

UDALA	2005	2006	2007
Andoain	%0,48	%0,48	%0,57
Aretxabaleta	%0,50	%0,43	%0,39
Arrasate	%0,38	%0,32	%0,32
Astigarraga	%0,70	%0,70	%0,70
Ataun	%0,38	%0,21	%0,33
Azkoitia	%0,45	%0,57	%0,59
Azpeitia	%0,46	%0,43	%0,40
Beasain	%0,91	%0,97	%0,97
Bergara	%0,32	%0,27	%0,25
Deba	%0,63	%0,67	%0,67
Donostia-San Sebastián	%0,56	%0,61	%0,59
Eibar	%0,71	%0,66	%0,64
Elgoibar	%0,20	%0,20	%0,20
Errenteria	%0,55	%0,55	%0,53
Eskoriatza	%0,34	%0,21	%0,16
Getaria	%0,53	%0,33	%0,38
Hernani	%0,54	%0,48	%0,59
Hondarribia	%0,53	%0,43	%0,49
Ibarra	%0,64	%0,70	%0,79
Irun	%1,55	%1,38	%1,45
Lasarte-Oria	%1,51	%1,21	%1,27
Lazkao	%1,01	%0,74	%0,67
Legazpi	%0,36	%0,43	%0,53
Lezo	%0,00	%0,00	%0,05
Oiartzun	%0,43	%0,58	%0,51
Oñati	%0,82	%0,74	%0,65
Ordizia	%0,45	%0,65	%0,93
Orio	%0,36	%0,29	%0,22
Pasaia	%0,05	%0,03	%0,00
Tolosa	%0,31	%0,27	%0,41
Urnieta	%0,37	%0,26	%0,36
Urretxu	Ez dugu datuaren informaziorik jaso		
Usurbil	%0,78	%0,95	%0,84
Villabona	%0,56	%0,00	%0,44
Zarautz	%0,66	%0,65	%0,57
Zegama	%0,35	%0,31	%0,37
Zumaia	Ez dugu datuaren informaziorik jaso		
Zumarraga	%0,68	%0,51	%0,70
Gipuzkoako Foru Aldundia	%0,45	%0,37	%0,30
Batzar Nagusiak	%1,05	%0,97	%0,95

3 Grafikoa

**GIPUZKOAKO ERAKUNDEEK 2007AN LANKIDETZARA BIDERATURIKO EHUNEKOA**

Lehen ikerketa honetan, erakundeek garapenerako lankidetzara bideraturiko kopuruak kalkulatzeko garaian, langile-gastuak ez gehitzea erabaki dugu, erakunde guztien datuak ez baititugu eskuratu. Datozen ikerketetan aipaturiko datua sartzen saiatuko gara, laguntzaren eraginkortasuna bermatuko duen kudeaketa gaitasuna ziurtatzeari ezinbesteko baiteritzogu.

Urretxuko eta Zumaiaiko udalak hutsean ageri dira, ez baitute datua eman.

Pasaia hutsean ageri da, 2007. urtean ez zuelako deus bideratu garapenerako lankidetzara.

Hala ere, beharrezko joera hori baino kezkarriagoa da udalerrri askok % 0,35 baino gutxiago bideratzea<sup>24</sup>. Ordainetan, azpimarragarria da zenbait erakundek %0,7 baino gehiago bideratzea<sup>25</sup>.

Honek guztiak lankidetzaren politika propioak bateratzeko interes eskasa uzten du agerian. GGKEen Koordinakundearen egiten dugun irakurketaren arabera, garrantzi gutxieneko aurrekontu-sailen artean dago lankidetzaren bideratutakoa, eta erakundearen aurrekontu beharren arabera murriz daiteke.

Ezinbestekoa da lankidetzaren politikak publikoki babestea, baina, gero, benetako aurrekontu-konpromisoetan gauzatu behar dira mezurik, eta, egun, Gipuzkoan ez da halakorik gertatzen.

## 2.6. Gipuzkoako GLOaren kalitatearen analisia

Orain arte, erakunde baten lankidetzaren politikari buruz hitz egiten denean, horrek bideratzen duen aurrekontu-saila bakarrik aipatzen da, eta zuzenean lotzen da aurrekontu hazkundera erakundeak sustaturiko lankidetzaren hobekuntzarekin.

Alabaina, aurrekontuaren azterketari bakarrik erreparatzea lankidetzaren politikaren gaineko ikuspegi murriztailea edukitzea da. Izan ere, zehaztasun teknikorik eta garden-tasunez egin behar da hori eta, bai eta politikari buruzko plangintza estrategiko batekin ere.

### Nola banatzen da laguntza: GLO motak

Maiz, tokiko Garapenerako Laguntza Ofizial guztia bildu nahi izaten dute «garapenerako lankidetzaren proiektuek». Zehatzago esanda, tokiko erakundeek hiru motako proiektuak darabiltzate bere lankidetzarako aurrekontuak kudeatzeko: garapenerako lankidetzaren egitarau eta proiektuak, laguntza humanitarioa eta larrialdietakoa, eta garapenerako prestakuntza eta sentsibilizazioa<sup>26</sup>.

Ondorengo grafikoetan, ikerketak irau dituen hiru urteetan lankidetzaren sailek izan duten eboluzioa alderatu dugu. Argi eta garbi ikusten da ehuneko handiena lankidetzaren proiektuetara bideratu dela, eta txikiena, berriz, laguntza humanitarioa eta sentsibilizazio lanetara. Joera bera mantendu da hiru urteetan<sup>27</sup>.


<sup>24</sup> Honako erakunde hauek % 0,35 baino gutxiago bideratu zuten 2007an: Arrasateko, Ataungo, Bergarako, Elgoibarreko, Eskoriatzako, Lezoko, Orioko eta Pasaiako udalak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Bereziki ezkorra da Pasaiaren datua, Udalak berak emandako datuaren arabera, 2007 urtean % 0 bideratu baitzuen.

<sup>25</sup> Herri hauei buruz ari gara, zehazki: Astigarraga, Beasain, Ibarra, Irun, Lasarte-Oria, Ordizia, Usurbil, Zumarraga, eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak (2007ko datuak).

<sup>26</sup> FEMP (2007). *La cooperación al desarrollo de los entes locales. Informe 2005*, FEMP / Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritza, Garapenerako Lankidetzaren Saila, Nazioarte eta Lankidetzaren Zuzendaritza, Madril.

<sup>27</sup> Grafikoan «Besteak» bezala ageri dena, hainbat kontzepturi dagokio, hala nola: lankide boluntarioentzako bekak, administrazio-gastuak, Oporrak Bakean gisako egitarauak, etab.

4 Grafikoa

**GIPUZKOAKO ERAKUNDEEN 2005-2007KO LANKIDETZA AURREKONTUEN BATEZ BESTEKOA****LANKIDETZA**

Gipuzkoako lankidetzaren, EAEkoa eta Espainiakoa bezala, garapenerako proiektuetan oinarritzen da bestelako laguntza moten gainetik. Esku-hartze egitarauok arazoa identifikatzeko, helburuak zehazteko, inbertsioak planifikatzeko, ekimenari jarraipena egiteko eta ebaluazioa egiteko prozedura zorrotzak igaro behar dituzte. Proiektuaren zikloa esaten zaio horri<sup>28</sup>.

Lankidetzaren proiektuen nagusitasun horretan eragin dute, besteak beste, GGKEek esku-hartzeen kudeaketan duten indarrak. Izan ere, GGKEen aldetik jasotako finantziario partekatuko egitarauetan oinarritu da erakundeen lankidetzarako politika ia erabat.

Hitzarmen kasuak salbu, deialdiak egiten dituzte Gipuzkoako herri administrazioek, edota aurrekontu-sailak bideratzen, urtebeteko proiektu mugatu eta helburu zehatzekoetara. Jarraipenik ezak ezinezkoa egiten du epe ertainera edo luzera begirako garapen ekimenak burutzea. Gainera, urtebeteko mugara egokitze moduko proiektuak osatu behar dira. Halaber, benetako eraginen neurtzea eta balorazioak zailtzen du horrek guztiak.

<sup>28</sup> FEMP (2007). *La cooperación al desarrollo de los entes locales. Informe 2005*, FEMP/Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritza, Garapenerako Lankidetzaren Saila, Nazioarte eta Lankidetzaren Zuzendaritza, Madril.



Era berean, oztopo burokratiko ugarirekin egin dute topo GGKEek, eta laguntzaren kalitaterako mesedegarriagoak diren beste arloetako baliabideak erabili behar izan dituzte, esku-hartzeen diseinu, jarraipen eta ebaluazioarekin loturikoak.

Bitarteko egonkor eta malguagoak bilatu behar dira, urtebeteko muga gainditu eta jarraipena bermatuko dutenak, proiektuen identifikazio, planifikazio eta formulazio egokia ziurtatzeko. Beharrezkoa da, gainera, tokiko eragileek parte hartzea.

#### GARAPENAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIOA ETA HEZKUNTZA

Garapena sustatzeko baliabideak transferitzearekin aski dela dioen teoria gaindituta dago.

Hegoaldeko herrialdeak eta gure gizartea eraldatu behar direla pentsatzeak izan behar du lankidetzaren deszentralizatuaren ikurretako bat da, «arazoaren» zergatiari aurre egiteak eta lankidetzaren tresna eraldatzailearen gisa hedatzeak.

Horrenbestez, aipamen berezia egin nahiko genuke sentsibilizazioak eta garapenerako hezkuntzak Gipuzkoako lankidetzaren politikan jokatzeko paperari buruz. Hiritarrekiko hurbiltasunak apustu estrategikoa eragin behar du tokiko elkarteetan.

Datuei erreparatu gero, lurraldean ez dira horrelako ekimenak nahiko sustatzen. GGKEen Koordinakundearen ustez, oso garrantzia da erakundeek herrietako eragile aktiboaren alde egitea, lankidetzaren egitarauaren xede bikoitza lotuta: batetik, garapenerako ekimenak babestea eta, aldi berean, gure inguruan elkartasuna sortzea. Horregatik beharrezkoa da hasieratik lankidetzaren proiektuak sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza proiektuetatik bereiztea, azken hauentzat berariazko kopurua gordez.

Gure iritziz, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza ekimenen deialdi bereziak egin ez ezik, prozesuak ere babestu behar dituzte diru kopuru handienak kudeatzen dituzten erakundeek, informazio-ekintzak finantzatuta talde zehatzen edo herritarren artean, oro har, Hegoaldeko herrialdeekiko elkartasuna areagotzeko.

#### EKINTZA HUMANITARIOA

Europar Batasuneko Kontseiluaren 1996ko araudiaren arabera, hauxe da laguntza humanitaria: «herritarren mesedetan egindako laguntza, sorospen eta babes ekintza ez diskriminatzaileak, ahulenen aldekoak, beste herrialdeen eta bereziki garapen bidean diren herrialdeen, hondamendi naturalen biktimen eta giza jatorriko gertakarien (gerrak, gatazkak) edo hondamendi naturalen edota giza jatorriko hondamendi naturalen biktimen aldekoak, egoera horien ondoriozko giza beharrei aurre egiteko behar den denboran»<sup>29</sup>.

Gainera, nazioarteko lankidetzaren esparru zailenetakoa da ekintza humanitaria, larrialdiak ezin direlako aurreikusi eta berehala erantzun behar delako. Alde horretatik, ezinbestekoa da herri administrazioek eraginkortasunez erantzutea. Horretarako, aurrekontu-sail bereziak erreserbatu beharko lituzkete, bizkortasunez kudeatu ahalko

<sup>29</sup> Kontseiluaren 1996ko ekainaren 20ko 1257/96 Araudia, Laguntza humanitarioari buruzkoa, official Journal L zenb. 163, 1996/07/02. 0001-0006.

direnak, traba burokratikorik gabe. Era berean, koordinazioa erraztuko luketen erantzun bizkorreko mekanismoak eta sareak antolatu beharko lituzkete<sup>30</sup>.

Gipuzkoako zenbait administrazioek esparru horretako ekimen batzuk babesten dituzte lankidetzarako aurrekontuaren zati batekin. Laguntzaren egikaritzea ez dagoenez zuzenean proiektuaren zikloko metodologiarekin loturik, dohaintza gisa hartzen da laguntza hori. Izan ere, toki administrazio gehienak oihartzun mediatiko handiko larrialdi humanitarioak gertatzen direnean mobilizatzen dira, baina ez dute berdin erantzuten gutxiago iragarri arren arinagoak ez diren larrialdietan.

Bidezkoa deritzogu tokiko erakunde batek larrialdi ekimen edo ekintza humanitario zehatzak batzuei laguntzeari. Batez ere, udalerriko talde eta erakundeen lankidetzaren proiektuen bidez, lehendik ezagutzen diren eremu edo populazioei eragiten badiete.

Hala ere, tokiko administrazioek lankidetzara bideratzen dituzten kopuruak hain txikiak direnez, ez dago horien bidez larrialdi egoerei edo ekintza humanitarioei erantzuterik. Diru laguntza txiki horiek baliatzeak luze jotzen du batzuetan, eta, beraz, ez dute «larrialdia» konpontzen; izan ere, jokabidea hautatze, erabakitze eta ordaintze protokoloei loturik egoten dira.

Arazo horri aurre egiteko, erakundeek halako ekintzak babesteari utzi gabe, Gipuzkoan laguntza horiek modu bizkor, eraginkor eta koordinatuan artikulatuko dituen Funtza sortzea proposatzen dugu.

2005az geroztik ongi diharduen Larrialdietarako Arabako Fondoa izan zen aitzindaria EAEn<sup>31</sup>.

## **Planifikazio estrategikoa: lehentasun geografikoak eta sektorialak**

Kalitatezko lankidetzaren lortzeko, ezinbestekoa da luzerako estrategia, helburu zehatzekoa, eta dauden baliabide urriekin ahalik eta eragin handiena lortzea.

Planifikazio gabezia hori da, hain zuzen ere, Gipuzkoako lankidetzaren eskasia nagusia.

Ikerturiko erakundeek kudeatzen dituzten baliabideak alde batera utzita, bakar batek ere ez du bere lankidetzaren politikaren planifikazio estrategikorik egin, oraino. Ez dago, beraz, ez lehentasun geografikorik, ez sektore lehenetsirik, ezta azken helbururik ere. Ondorioz, sakabanatuta daude proiektuak, eta ez dute aintzat hartzen azken eragina.

Plangintza maila bakoitzak aukeratuko du zein eskualdetan egingo duen lan, bai eta zein sektore lehenetsiko diren, finantziazioaren eta helburuen arteko koherentzia mantentzeko, erakunde bakoitzaren baliabide eta gaitasunen arabera, betiere.

<sup>30</sup> CONGDE (2003). *Análisis de la Cooperación Oficial Descentralizada en el Estado español en el período 1999-2002*, Eduardo Sánchez Jacob (Koord.), Madril.

<sup>31</sup> Larrialdietarako Arabako Fondoa: Kasuan kasuko larrialdian jarduteko gaitasuna ziurtatzen duten eragileentzako berehalako laguntza ekonomikoa bideratuta, larrialdi humanitarioko ekintzak babesteko mekanismoa da. Nork eta non jardun dezakeen jakitea da oinarria, eta dirua berehala eskuratzea. Hasiera batean, Arabako Foru Aldundiak, Vital Kutxa Fundazioak eta Gasteizeko Udalak sinatu zuten hori abian jartzeko hitzarmena, baina bestelako ekarpen publikoak ere onartzen ditu.

Sektorekako banaketari dagokionez, nazioarteko gomendioak aipatuko ditugu, Nazio Batuen hainbat agentziak gauzaturiko 20/20 Ekimena hain zuzen. Ekimen horretan, GLOaren lehentasun sektorialak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bideratzea aipatzen da, OGZra bideraturiko GLOa, sektoreka banatutako GLOaren % 20 baino txikiagoa ez izatea bermatuta.

